

ESP. KODEA: 2017IDBO0013	
ESPEDIENTEA	
TITULARRA	BEASAINGO UDALA
TOKIA	

BEASAINGO UDALAREN ETA SAREA FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Beasainen, 2017ko maiatzaren 26an

ELKARTUAK

Alde batetik, AITOR ALDASORO ITURBE (Alkatea), Beasaingo Udalaren ordezkari. Ekintza honetarako baimena, 2017-05-25ean Gobernu Batzordeak hartutako erabakiak ematen dio eta baita ere, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21,1b) artikulua ere bai

Alde batetik, AGUSTIN TRANCHE AGUIRRE, helbidea Masti Loidi kaleko 20 zenbakian, 20100 Erretera, eta G 20615308 IFK zenbakia duen SAREA FUNDAZIOKO zuzendari modura. Ekintza honetarako baimena, Guadalupe María Inmaculada Adanez García Notario aurrean sinatutako eta 3168 protokolo zenbakia duen, 2006ko abenduaren 1eko eskritura publikoak ematen dio.

Dagozkien erakundeei behartzeko legezko nahikoa ahalmen aitortzen diete elkarri, eta

IRIZTEN DUTE

- I. Beasaingo Udalak eta Sarea Fundazioak helburu baterako edota osagarriak dituztela kolektibo kaltetuei lagundu eta babesteari dagokionez eta, horrenbestez, lankidetzak beren potentzialak ahalik eta gehien aprobetxatzea ahalbidetuko duela.
- II. Beasaingo Udalaren eta Sarea Fundazioaren arteko baturak eta koordinazioak interes sozial handia duela, artatutako kolektiboen onuran egiten den lana areagotzea ahalbidetzeko esku-hartze bideak finkatzeko ahaleginak bateratzeari dagokionez.
- III. Aurrez adierazitakoa oinarritzat hartuz eta giza-integrazio programak burutu ahal izateko, baratze sozialetara bideratutako partzelen (60) % 35a interes taldeei esleituko zaie, Beasaingo udalerrian baratzeak esleitu eta kudeatzeko araudiak dioenez (GAO, 2017-04-28): 14. artikulua eta 3h.2 artikulua (interes berezikotzat hartzen diren kolektiboak, esaterako, irabazi asmorik gabeko elkarteak, baratze sozialeko erabilerarako Udalarekin hitzarmena duten fundazioak, eskolak etab.)



KLAUSULAK

LEHENIK. Elkarlanaren helburua.

Lankidetz hitzarmen honen helburua da aurrekarietako III atalean aipatu den lagapena zehaztu eta koordinatzea da. Lagapena, gehienez ere 21 baratzeena izan daiteke.

BIGARRENA. Formalizazioa

Erakunde bakoitzak, lankidetz hitzarmen honen helburuarekin zerikusia duten, komenigarritzat jotzen dituen jarduerak proposatuko dizkio besteari, eta

HIRUGARRENA. Giza baliabide eta materialen zerrenda

- a) Sarea Fundazioa, esleituko zaizkion baratze sozialen programa koordinatu, mantendu eta abiarazteko beharrezkoa den lantalde profesionala kontratatzeaz arduratuko da.
- b) Sarea Fundazioak aukera izango du bere tresna eta lanabesak mugitu eta erabiltzeko bere erantzukizunpeko partzeletan eta egiten dituen jarduerak EKO GUNEarekin koordinatuko ditu.

LAUGARRENA. Parte-hartzaileak.

Caritas Goierri eta Sarea Fundazioa arduratuko dira beren erantzukizunpeko partzelen barneko nekazaritzako jardueretan parte hartzen duten pertsonak hautatu, hartu, akonpainamendua egin eta jarraipena egiteaz.

BOSGARRENA. Mantenu-gastuak eta finantzaketa

Sarea Fundazioa, baratze sozialaren kudeaketan zehar, edozein zerga, tasa edo kanon ordaintzeaz salbuetsiko da, eta baita fidantza jakin bat ordaintzeaz ere.

LAUGARRENA. Komisio mistoa ezartzea.


Lankidetzaren jarraipena errazte aldera, komisio misto bat eratuko da, Beasaingo Udaleko eta Sarea Fundazioako ordezkariekin osatuko dena.

BOSGARRENA. Giza taldea

Sarea Fundazioaren aldetik, lankidetz hitzarmen honetaz arduratuko den pertsona AGUSTIN TRANCHE AGUIRRE izango da (edo INTZA BARANDIARAN).

Beasaingo Udalaren aldetik, zerbitzu arloko arduradun politiko nahiz teknikoak izango dira.

SEIGARRENA. Iraupena



Lankidetzeta-hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen den unetik aurrera eta urtebeteko indarraldia izango du. Epe hori luzatu egin ahal izango da aldeez aurretik aldeak ados badaude, gehienez, hiru urtez.

Eta adostasunaren froga modura, bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen dute,

Alkatea
Aitor Aldasoro Iturbe

Sarea Fundazioaren Zuzendaria
Agustín Tranche Agirre

A purple ink signature of Agustín Tranche Agirre.